Esku artean duzun eskuorri honetan, Lasarte-Oriako Udalak azken hilabeteetan herritarren eta animalien arteko elkarbizitzaren inguruan egin duen lanketaren emaitza duzu.

ORDENANTZA BERRIA

Modu honetan, “Animaliak babesteko eta edukitzeko Udal Araudia”-ren idaztea posible egin duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Parte-hartze bileretan egon zareten guztioi zorionak! Denon artean proiektuak osoagoak dira beti, ikuspuntu gehiago izaten baitira kontutan. Udal Araudi berri hau denontzako positiboa izango dela uste dugu, elkarbizitza egoki bat izan dezagun bakoitzaren eskubideak noraino iristen diren ongi zehazten direla irizten baitiogu.

LAGUNTZA IKASTAROA

Beste alde batetik, animalien jabeei eta izan nahi dutenei animaliekiko jabetza egoki bat izateko laguntza behar dutela uste dugu. Hori dela eta etologian esperientzia handia duen elkarte batekin kontaktuan jarri gara eta zuentzako hitzaldiak eta mahai inguruak antolatu ditugu, bertan, animalien jokabideen eta hezkuntzaren inguruko gai ezberdinak jorratzeko.

Guztion Lasarte-Oria izan dadin lan egin dezagun.

El folleto que tienes entre manos es el resultado del trabajo sobre la convivencia entre la ciudadanía y los animales que ha realizado el Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

NUEVA ORDENANZA

De este modo, queremos felicitar a todos los que han tomado parte en la elaboración de la “Ordenanza Municipal para la protección y tenencia de animales”. Felicidades a todos los que habéis asistido a las reuniones de participación ciudadana, los proyectos son más completos cuando se realizan entre todas/os. Creemos que la nueva Ordenanza Municipal es positiva para todos, puesto que están bien definidos los derechos de cada uno para asegurar una buena convivencia.

CURSO DE AYUDA

Por otro parte, pensamos que los actuales dueños de los animales, como los futuros dueños necesitan ayuda y formación para una correcta tenencia. Por ello, nos hemos puesto en contacto con una asociación experta en etología para trabajar en charlas y mesas redondas diferentes aspectos sobre el comportamiento y educación de los animales.

Trabajemos para conseguir una Lasarte-Oria de todas/os y para todas/os.

## Izen ematea / inscripción

ingurumena@lasarte-oria.org
Udaletxe berriko 4. solairuan / 09:00-13:30
4ª planta del nuevo Ayto. / 09:00-13:30

## Bidali beharreko datuak / datos necesarios

Izen abizenak / Nombre y apellidos
NAN / DNI · Telefonoa / Teléfono
Txakur arraza / Raza del perro

Ikastaro guztiak, bai teorikoak nahiz praktikoak dohakoak izango dira / Todos los cursos, teóricos y prácticos, serán gratuitos.

# Animaliak edukitzeko eta babesteko udal-ordenantza arautzailea

## Animalien identifikazioa

1. Txakurren jabeak ohiko bizilekua duten udalerriko udaletxean animaliak identifikatuta eta erroldatuta izatera behartuta daude.
2. Animaliaren jabeak AIEOri jakinarazi behar dio erregistro horretako datuetan izandako edozein aldaketa:

a) Jabeari edota txakurrari buruzko datuen aldaketa.

b) Jabe aldaketa.

c) Animaliari baja ematea, hil egin delako edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora behin betiko eraman delako.

d) Animalia galdu egin delako edo lapurtu dutelako.

## Bide publikoan txakurrak edukitzea

1. Txakurrak lokarriarekin eta lepokoarekin eraman behar dira bide publikoetan, espaloietan, parke, lorategietan,… kate edo uhal bati lotuta (2 metrokoak gehienez).

   Arriskutsuak izan daitezkeen animalien kasuan derrigorrezkoa izango da euren tamainara egokitutako muturrekoarekin eramatea.
2. Debekatuta dago, txakurren gorozkiak bide publikoetan, parkeetan, lorategietan,.. uztea.
3. Gorozkiak bide publikotik jasotzearen arduraduna txakurra daraman pertsona izango da. Bera izango da, eta haren ordez jabea, araua ez betetzearen erantzulea.
4. Salbuespen gisa, animalia arriskutsutzat sailkatuta ez daudenak eta erasotzeagatik aurrekaririk ez dutenak, libreki ibili ahalko dira planoan zehazten diren gune eta orduetan. Betiere, jabea lagun dutela.

## Lizentzia

Abenduaren 23ko 50/1999 Legearen babesean animalia arriskutsutzat sailkatutako edozein animalia eduki ahal izateko, administrazio lizentzia lortu behar da. Jabearen bizilekua den udalean lortu beharko dena.

## Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroa

1. Txakurra Animali Arriskutsuen Udal Erregistroan inskribatzearen ardura lizentziaren titularrari dagokio. Lizentzia eskuratu eta 15 eguneko epea izango du horretarako.

# Ordenanza municipal reguladora de la tenencia y protección de animales

## Identificación de animales

1. Los propietarios de perros están obligados a tenerlos identificados e inscritos en el municipio en el que residen habitualmente.
2. El propietario del animal deberá comunicar al REGIA cualquier variacion de los datos:

a) Modificación de los datos relativos al titular y/o animal.

b) Cambios de titularidad.

c) Baja del animal motivada por fallecimiento o por traslado definitivo fuera de la CAPV.

d) Desaparición por pérdida o robo.

## Tenencia de perros en la vía pública

1. Los perros deberán de ir atados con una correa que no supere los dos metros en los espacios urbanos, tales como, aceras, parques, jardines, bidegorris,…

   En el caso de animales potencialmente peligrosos será obligatorio llevarlos con bozal adaptado al tamaño y características del perro.
2. Queda prohibido depositar excrementos en las vías públicas, parques, jardines,…
3. La persona que conduce al animal es la responsable de retirar el excremento de la vía pública. Siendo estos los responsables de no retirarlos, y subsidiariamente el dueño del animal.
4. Excepcionalmente, los perros que no estén calificados como Animales Potencialmente peligrosos (APP) y que no tengan ningún antecedente registrado por agresión, podrán circular libremente en compañía de sus dueños/as, por las zonas periurbanas señaladas en el plano adjunto.

## Licencia

Según La ley 50/1999, de 23 de diciembre, la tenencia de animales potencialmente peligrosos, requerirá la previa obtención de una licencia administrativa. Que será otorgada por el Municipio de residencia del solicitante.

## Registro de animales potencialmente peligrosos

1. Incumbe al titular de la licencia la obligación de solicitar la inscripción en el Registro Municipal de Animales Potencialmente Peligrosos, dentro de los quince días siguientes a la fecha en que haya obtenido la correspondiente licencia.



# Lasarte-Oria guztiona

Herritarron eta animalien arteko elkarbizitzan aurrera pausuak

Pasos por la convivencia entre los animales y la ciudadanía

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

guztiona

Más Etología Aplicada

# PROGRAMAZIOA

Manuel Lekuona K.E.
19:00-20:45

**0. SESIOA** maiatzak 8 | Mahai ingurua
Hizlarien aurkezpena eta solasaldia

**1. SESIOA** maiatzak 22 | MANUEL VILLAR
Etologia hitzaldia

**2. SESIOA** ekainak 26 | IÑAKI GOYA
Etologia kaninoa hitzaldia

**3A. SESIOA** uztailak 17 | ITXASO YANEZ
Animalia ikaskuntza eta hezkuntza metodoak hitzaldia
uztailak 24 | Praktika 1
Ezagutza asoziatibo pauvlovianoaren teoria

**3B. SESIOA** irailak 18 | ITXASO YANEZ
Animalia ikaskuntza eta hezkuntza metodoak hitzaldia
irailak 25 | Praktika 2
Baldintzapen instrumental edo operantearen teoria

**4. SESIOA** urriak 9 | KOLDO BARRENETXEA
Jokabidearen genetika hitzaldia

**5. SESIOA** urriak 23 | IÑAKI GOYA
Hazkuntza eta hautespena hitzaldia

**6. SESIOA** azaroak 20 | ALEJANDRO CARRION
Oinarrizko hezkuntza obedientzian hitzaldia

# Jakin beharrekoa txakurra eduki aurretik!

## Etologia kaninoa, animalia ikaskuntza eta hezkuntza metodoak

6 sesio teoriko + 2 praktiko | 2014ko maiatzetik azarora | Lasarte-Oria

### ETOLOGIA

Askatasunean bizi diren animalien portaera eta bizirik irauteko eta ugalketako arazoei ematen dizkieten konponbideak aztertzen dituen zientzia da etologia. Etologia aplikatua zientzia puruaren adar bat da, garai batean aske izan ziren eta gaur egunean gizakia laguntzen duten etxeko abereen jokabide-ereduak ulertzen laguntzen diguna. Metodo zientifikoaren bitartez, txakur-jabeari bere txakurrak dituen jokabide-ereduen errealitatea erakutsi eta irakatsi nahi diogu, hartara txakurraren izaera biologikoa hobeto ezagutzeko eta ulertzeko modua izan dezan. Behatzea, baloratzea eta nork bere buruari galdetzea da ulermenaren oinarria.

### ETOLOGIA KANINOA

Beste edozein espeziek bezala, txakurrak ere badu ingurumenera moldatzeko bidea ematen dion sistema bat. Orain dela 30.000 urtetik gurekin batera bizi den animalia hau ondo ulertu ahal izateko, erakusten dituen erritualak, komunikazioa, portaera, jokabidea eta sena ere ondo ezagutu behar ditugu.

### ANIMALIA IKASKUNTZA ETA HEZKUNTZA METODOAK

Txakurra lagun perfektua da, aspaldi gurekin erlazionatutako espeziea; horregatik, lotura ezin hobea du gizakiarekin. Sinbiosi horretan modu ordenatuago eta gozagarriago batean bizi ahal izateko, gizakiak ez ezik, txakurrak ere jakin behar du zer den guk beragandik espero duguna, eta guk ere jakin behar dugu txakurraren ikasteko gaitasunak ez duela amaierarik. Ikasteak egonkortu egiten du animaliaren psikea, eta hari irakasteak hobetu egiten du harekiko erlazioa eta lotura.

### JOKABIDEAREN GENETIKA

Zoritxarrez, gizakiak hautespen artifizialaren pean jarri du txakurra urte luzeetan, nahi baino gehiagotan. Horren ondorioz, antsietate handiko animaliak, beldurtiak, hiperaktiboak edo erasotzaileak sortu dira. Horri txakur-jabetza ezegokia lotuz gero, gizakiekiko elkarbizitza zailtzen duten hainbat portaera eta jokabide izatera bideratzen ditu animaliak. Egoera horiek ondo maneiatzeak txakurren eta gizakien arteko nahiz herritarren eta gizartearen arteko erlazioak hobetzen lagunduko digu.

### HAZKUNTZA ETA HAUTESPENA

Saio honetan, txakur-hazleak txakurraren etorkizuneko bizitzan duen berebiziko garrantziaz arituko gara. Hazkuntzaren alderdi garrantzitsuenak. Aplikakizun den legedia. Txakur bat erosterakoan kontuan izan behar ditugun puntu garrantzitsuenak erakutsiko ditugu, zer galdetu eta zer eskatu. Genetika on batek izan behar dituen ezaugarriez ere arituko gara, heldua denean txakur osasuntsua izango dela ziurtatu ahal izateko. Eta, azkenik, txakur batean aukeratu beharreko aspektu fisiko zein morfologiko positiboak zeintzuk diren azalduko dugu.

### OINARRIZKO HEZKUNTZA OBEDIENTZIAN

Zer da heztea? Gauza bera al da heztea eta trebatzea? Noiz hasi nire txakurra hezten? Zein ariketa egin behar ditut eta nola?

Azken saio honetarako, denok espero dugun zerbaiti buruzko gaia prestatu dugu: nola lortu nire txakurrak kasu egitea. Heziketarako modu eta diziplina ezberdinak ezagutuko ditugu, eta horiek nola aurrera eraman eta zein oinarrizko ariketa erakutsi. Saio hau eta honi lotutako bi praktikak izango dira trebatzearen zutabe irmoa.

# Lo que nadie me dijo antes de tener perro

## Etología canina, aprendizaje animal y métodos de adiestramiento básicos

6 sesiones teóricas + 2 prácticas | Mayo a Noviembre | Lasarte-Oria

### PONENCIA ETOLOGÍA

La Etología es la ciencia que estudia el comportamiento de los animales en libertad y las soluciones que éstos dan, a los problemas de supervivencia y reproducción. La Etología aplicada es una derivación de la ciencia pura que nos ayuda a comprender los patrones de conducta de aquellas especies, que en su pasado fueron libres y ahora, acompañan al Hombre en calidad de animales domésticos. A través del método científico perseguimos enseñar y formar al propietario sobre la realidad de los patrones de comportamiento que su perro tiene y conocer mejor la naturaleza biológica del mismo. Observar ,valorar y preguntarse, base de la comprensión.

### PONENCIA ETOLOGÍA CANINA

Como toda especie, el perro también cuenta con un sistema que le permite adaptarse al ambiente. Rituales, comunicación, comportamientos, conductas e instintos que no duda en exhibir, los cuales hemos de conocer para poder entender mejor al animal, que desde hace 30.000 años convive con nosotros como perro.

### PONENCIA APRENDIZAJE ANIMAL Y MÉTODOS DE ADIESTRAMIENTO

El perro es un compañero ideal, unido a nosotros desde hace un montón de años, cierra una vinculo con el hombre extraordinario. Para poder vivir en esa simbiosis de forma más ordenada y placentera, no solo el humano, sino también el perro ha de saber qué esperamos de él y nosotros que es capaz de ser un saco sin fondo del aprendizaje. El aprender, estabiliza la psiquis del animal y el enseñarle mejora el vinculo y la relación con él mismo.

### PONENCIA GENÉTICA DE LA CONDUCTA

Por desgracia, la selección artificial a la que el hombre ha sometido al perro a lo largo de tantos años, en mas ocasiones de las deseadas, han creado animales con aspectos del carácter que los hacen ser ansiosos, miedosos, hiperactividad o agresividad enervada, esto unido a una tenencia inadecuada por parte de su propietario los condena a obtener ciertos comportamientos y conductas con las que el humano no puede convivir. Saber manejar estas situaciones, mejora la relación perro/hombre y ciudadano/sociedad.

### PONENCIA CRÍA Y SELECCIÓN

En esta sesión comentaremos la importancia vital del criador en la vida futura del perro. Los aspectos mas importantes de la cría. Legislación Aplicable. Se enseñaran los puntos mas importantes a tener en cuenta a la hora de adquirir un perro, que preguntar y que exigir. Hablaremos sobre las características que ha de tener una buena genética, para poder asegurar un perro sano cuando sea adulto. Por ultimo informemos de cuales son los aspectos positivos, tanto físicos como morfológicos, a seleccionar en un perro.

### PONENCIA ADIESTRAMIENTO BÁSICO EN OBEDIENCIA

¿Qué es Educar?, ¿Es lo mismo Educar que Adiestrar?, ¿Cuándo he de empezar a educar a mi perro?, ¿qué ejercicios he de realizar y cómo?.

Para esta última sesión hemos preparado el tema tan esperado: cómo conseguir que mi perro me haga caso. Veremos desde los tipos y disciplinas de educación, hasta la forma de llevarlas a cabo y qué ejercicios básicos enseñar. Esta sesión unida a dos practicas formarán la columna firme del adiestramiento.

# PROGRAMACIÓN

Casa de Cultura Manuel Lekuona
19:00-20:45

**SESIÓN 0** 14 mayo | Mesa redonda
Presentación de ponencias

**SESIÓN 1** 22 mayo | MANUEL VILLAR
Ponencia Etología

**SESIÓN 2** 26 junio | IÑAKI GOYA
Ponencia Etología canina

**SESIÓN 3A** 17 julio | ITXASO YANEZ
Ponencia Aprendizaje animal y métodos de adiestramiento
24 julio | Práctica 1
Condicionamiento CLÁSICO Pavloviano

**SESIÓN 3B** 18 septiembre | ITXASO YANEZ
Ponencia Aprendizaje animal y métodos de adiestramiento
25 septiembre | Práctica 2
Condicionamiento OPERANTE o instrumental

**SESIÓN 4** 9 octubre | KOLDO BARRENETXEA
Ponencia Genética de la conducta

**SESIÓN 5** 23 octubre | IÑAKI GOYA
Ponencia Cría y selección

**SESIÓN 6** 20 noviembre | ALEJANDRO CARRION
Ponencia Adiestramiento básico en obediencia